




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

Item liberatuak 2010



ISEI • IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION




HONDARTZA-BOLEIBOLA

Kostaldeko herri batean, Hondartza-Bolei elkarteak txapelketa bat antolatu du kirol hori sustatzeko.

Nazioarteko araudiaren arabera, zelaia 16 m x 8 m-ko laukia izan behar da, gutxienez 3 m zabal den *esparru libre* batez inguratua.

Herrian eraiki den zelaiak forma hau du:



(Moldatuta 2010eko proba pilotuan erabilitako jatorrizko egoeratik)

01

Esparru librearen azalera honela deskonposa daiteke:

- A. Bi laukizuzen eta bi zirkulu.
- B. Lau laukizuzen eta zirkulu bat.
- C. Lau laukizuzen eta lau zirkulu.
- D. Lau laukizuzen.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Espazioa eta Forma.
- **AZPI-KOMPETENTZIA:** 6. Geometria-nozioak eta espazioa adierazteko sistemak erabiltzea, espazio fisikoari buruzko informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko, eta orientazioko eta adierazpen espazialeko hainbat problema ebazteko.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Irudi geometrikoak identifikatzen ditu, eguneroko bizitzako hainbat testuingurutan.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B) Lau laukizuzen eta zirkulu bat.
- **KOMPETENTZIA-MAILA 2010ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
ERDI-MAILA

02

Zein da *esparru librearen* azalera?

- A. 144,00 m².
- B. 180,00 m².
- C. 172,26 m².
- D. 308,26 m².

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Espazioa eta Forma.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Irudien propietateak kontuan hartzen ditu, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta horiei aurre egiteko.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C) 172,26 m².
- **KONPETENTZIA-MAILA 2010ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
MAILA AURRERATUA

03

Nazioarteko lehiaketetan Hondartza-Boleiko baloiaren pisua 0,260 eta 0,280 kg artekoa izan behar da.

285 g-ko baloi batek zenbat gramotan gainditzen du lehiaketa horietan zilegia den gehienezko pisua?

- A. 0,005 gramotan.
- B. 0,05 gramotan.
- C. 0,5 gramotan.
- D. 5 gramotan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Kopurua.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Neurriaren eta haren magnitudeen ezaguera aplikatzea, neurriarekin zerikusia duten zenbakizko testuak interpretatzeko eta ulertzeko, eta eguneroko bizitzako hainbat unetan sortzen diren egoera problematikoei aurre egiteko.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Sistema metriko hamartarrari dagozkion baliokidetasunak erabiltzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D) 5 gramotan.
- **KONPETENTZIA-MAILA 2010ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
ERDI-MAILA



GAZTEEN TALDEA

Astialdiko gazteen talde batek 11 gaztez osatuta dago, eta bilera-gela daukate ekintzak antolatzeko.



(Moldatuta 2010eko proba pilotuan erabilitako jatorrizko egoeratik)

01

11 gazte horien artean xake-joko txapelketa bat antolatu dute. Gazte bakoitzak bi partida jokatuko ditu beste kide guztietako bakoitzaren kontra.

Zenbat partida jokatuko dira guztira?

- A. 91 partida.
- B. 110 partida.
- C. 111 partida.
- D. 121 partida.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 4. Problema ebaztea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 12. Hainbat motatako problema ebaztea eredu heuristikoren bat erabilia: enuntziatua aztertuta, estrategia egokiak hautatuta, egin beharreko kalkuluak eginda eta lortutako emaitza egiaztatuta.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zenbait estrategia heuristiko ikasi eta aplikatzen ditu, eta problema ebazteko egokienak zein diren badaki.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B) 110 partida.
- **KONPETENTZIA-MAILA 2010ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
MAILA AURRERATUA

02

Haien bileretan erabiltzeko, taldeko kide batek 8 boligrafo eta 20 koaderno erosi ditu, eta haien truke 68 € ordaindu ditu. Prezio berean, beste taldekide batek 2 boligrafo eta 10 koaderno erosi ditu, eta haien truke 32 € ordaindu ditu.

Zein da boligrafo bakoitzaren eta koaderno bakoitzaren prezioa?

Problema ebatzi, eta egin behar dituzun eragiketak eta soluzioa adierazi.

Eragiketak:



Eraitza: _____

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Kantitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Hizkuntza aljebraikoa erabiltzea sinbolizatzeko eta orokortzeko, eta lehen mailako ekuazioen planteamenduan eta ebazpenean integratzea, hizkuntza-ezaguera hori problemei ekiteko eta horiek ebazteko nahitaezko tresna gisa erabilia.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Lehen mailako ekuazioak eta ekuazio-sistemak ebazten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**
Demagun
 $x =$ boligrafo bakoitzaren prezioa (€)
 $y =$ koaderno bakoitzaren prezioa (€)
 Honako ekuazio-sistema planteatuta:
 $8x + 20y = 68$
 $2x + 10y = 32$
 Ekuazio-sistema hori zuzen ebazten bada, honako eraitza lortuko da:
 $x = 1$ € boligrafo bakoitzeko ; $y = 3$ € koaderno bakoitzeko
- **KONPETENTZIA-MAILA 2010ko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
MAILA AURRERATUA